

telebista ♦ irratia

‘Iparragirre sariak’ banatuko dira bihar gauean Donostian

ETB1ek eskainiko du EITBko profesional onenak saritzeko egiten den gala

Urtzi Urkizu / Donostia

Mikel Garmendia, Felix Linares, Maddalen Iriarte eta Jose Ituarte dira irabazleetako batzuk.

MIRAMONDIK zuzenean, ETB1 kateak Iparragirre sarien gala eskainiko du bihar gaueko 22:00etan. Ekitaldiko aurkezleak *Sikofonian* aritzen diren Peter Ansorena eta Kike Amonarriz izango dira.

Iparragirre sari hauen bidez, ikusle eta entzuleek Euskal Irrati Telebistan urteko langile onenak direnak aukeratzen dituzte. Bosgarren urtea da sari hauek banatzen direla, eta guztira hamasei sailletako irabazle aukeratzen dira.

Euskal Telebistan, aktore onenaren saria Mikel Garmendiari eman diote, *Goenkale* telesailan betetzen duen Joxe Mariren rolarengatik. Programa aurkezlerik onenaren saria, berriz, *La noche de* eta *Uno de los nuestros* zinema saioak aurkezten dituen Felix Linaresek irabazi du. Saio edo telesail onenaren sarian, ETB1ean Joxe Felipe Auzmendik aurkezten duen *Easy Peasy* lehiaketak eraman du; eta ETB2an Carlos Zabalak eta Eneko Olasagastik zuzentzen duten *Maité* telesail arrakastatsuak. Albistegietako edo kiroletako aurkezle onenaren sailean, ETB1ean Maddalen Iriarte izan da saritua (*Gaur egun* albistegia bi mila aldiz baino gehiago aurkeztu du) eta ETB2an *El Derby* eta *ETB Kirolak* saioetako Jose Ituarte.

Albistegietako edo kiroletako saio onena, Xabier Euzkitze eta Joxean Tolosaren *ETB Kantxa* pilota saioa izan da euskarazko katean, eta Julio Ibarra kazetariak



XOUSE SIMAL

1995ean sortu ziren Iparragirre sariak EITBeko profesionalen lana urtero saritzeko.

aurkeztu zuen ETArene suetenaren programa berezia ETB2an.

Zortzi sari irratietako langileentzat

Euskadi Irratian *Eguna* esnatzen irratsaioko Susana Mujika eta kiroletako Txetxu Urbietak eta Jose Maria Apaolaza izan dira sarituak; Radio Euskadin *Lo que queda del día* irratsaioko Ander Iribar eta kiroletako Julen Sordo; Radio Vitorian TAU baskoniako partiduen emankizunak eskaintzen dituen Rafa Muntion eta *Soinu Gozoa* irratsaioko Maixa Lizarribar izan dira sarituak; eta Euskadi Gaztean *Salgai* irratsaioko Edurne Garmendia

■ ■ ■ Bihar gaueko hamarretan eskainiko da Iparragirre sarien gala, eta aurkezleak Peter Ansorena eta Kike Amonarriz izango dira. Kantari batek Jose Maria Iparragirreren egingo du.

Euskal Telebistan	
Saria	saritua
Programa eta telesailletako aurkezle edo aktorerik onena:	Mikel Garmendia (ETB1) Felix Linares (ETB2)
Programa edo telesailik onena:	Easy Peasy (ETB1) Maité (ETB2)
Albistegietako edo kiroletako aurkezlerik onena:	Maddalen Iriarte (ETB1) Jose Ituarte (ETB2)
Albistegietako edo kiroletako programarik onena:	ETB Kantxa (ETB1) Su-eten Saio berezia (ETB2)

Irratietan	
Irratia	saritua
Euskadi Irratia:	Susana Mujika Tx.Urbietak, J.M. Apaolaza
Radio Euskadi:	Ander Iribar Julen Sordo
Radio Vitoria:	Rafa Muntion Maixa Lizarribar
Euskadi Gaztea:	Edurne Garmendia Klaudio Landa

eta *Prime Time* irratsaioa aurkezten duen Klaudio Landa esatariarentzat izan dira sariak.

Bihar gauean egingo den galan, gonbidatu berezi bat

izango dela jakin dugu. Jose Maria Iparragirre berpiztu egin da, eta bere abesti batzuk kantatuko ditu Euskal Telebistako ikus-entzule guztientzat.

aditzea badut ♦ Xabier Lasa

Delirioa

Presoak gogoan • Euskal presoen oroimena dugu nagusi, Eguberrietan euskal irratiak ireki dituzten zorion-agurren saioetan. Kontaezinak dira entzuleen musu, mezu, animo eta dedikatutako kantuak. Eta hori Egin Irratia isilik delarik. Sintomatikoa da batik bat, euskal irrati publiko aditzea: Jon Uriarteren *Con mucho cariño* saioan, Euskadi Irratian noiznahi ireki ohi diren tarreak...

Aulestia • Iritzi-emaile honek idatzi berri duen HB. *Crónica de un delirio*-an, on-gaitztoen zatiketa kristau-manikeoa du abiapuntu, deabruaren delirio fanatikoa euskalgintzan, edonon ikusteko. Gizartearen barruan beste gizartea osatzen omen du ezker abertzaleak; pentsamendu, jokabide, kulturkontsumo e.a. berezituak dituen gizartea. Delirioaren frogatzat ditu, besteak beste, Egin Irratian agurren saioa zen *Eskatzea libre* eta bere deitzaileak. Erne egon bitez, bada, demokraziaren zaindariak, Gabonok erakutsi baitigute delirioaren birusa barneratu dela euskal irratigintzan. Eta ernea-ego egon bedi Kepa, bera kolaboratzaile den Euskadi Irratia baita deitzaile paranoiko horien irratirik kutunena.

Madrilen loreak • Ederki losentxatu dute Madrilen Kepa Aulestia. C. Herrera, C. Llamas eta I. Gabi-londok elkarrizketa luzeak ere eskaini izan dizkiote. Jada tokirik egin diote euskal pentsalari zizeroneen klub selektoan, Juaristi, Savater eta Azurmendiren ondoan. Oraindik ere izan lezake tarterik tertuliaren batean. Madrilen asko eraman ohi da tertulietan edukitzea euskal herritar bat, euren entzun nahi dutena esango duen afektoa, noski. Bidebategi, Kortean Kepa libre litzateke delirioaren birusaz kutsatetik.